



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

2023/24 memoria EHUgune Zuzendaritza - Konpromisoa eta eragin soziala



Aurkibidea

- › Aurkezpena
- › Giza taldea
- › Unibertsitate solidarioa: Garapenerako Lankidetzak
- › Unibertsitate solidarioa: Gizarte konpromisoa
- › EHUgune
- › Inpaktu soziala
- › Lankidetzak



EHUguneko zuzendaritza. Konpromisoa eta eragin soziala

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren mendeko zuzendaritzaren helburua da: UPV/EHUren eta euskal gizartearen arteko elkargunea eta konpromisoa sustatzeko jardun lerro estrategikoak diseinatzea eta planifikatzea, gizarte, kultura, ekonomia eta politika arloko gai interesgarriak aztertzeke.

Lankidetzaren Bulegoa: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren bultzatzea, hau da, unibertsitateko kide guztien ahalegin solidariotzat hartuta, Hegoalde globala osatzen duten herrialdeen gaitasunak indartzera bideratuta, batez ere goi mailako hezkuntzan.

Gizarte konpromisoa: gizartearekin konprometita dagoen eta gizarteratze, ekitate eta jasagarritasun balioak sustatzen dituen unibertsitate bateranzko aldaketa bultzatzea.

EHUgune: hausnarketa kolektiborako gune irekia da, euskal unibertsitate publikoak sortzen eta biltzen duen ezagutza kezka sozialaren zerbitzura jartzea bilatzen duena, kultura zientifikoa eta eztabaidaren kultura sustatuz.

Inpaktu soziala: UPV/EHUren inpaktu sozialean oinarrituta neurritzen eta kudeatzen laguntzea, eragiten duen eraldaketa soziala eta ekartzen duen balioa eta berrikuntza soziala egiaztatzeke.



Giza taldea

David Hoyos

Zuzendaritza
ehugune@ehu.eus



Estibaliz Martínez

Garapenerako lankidetzeta
oficop@ehu.eus



Felipe García

Gizarte konpromisoa
iraunkortasuna.gizartea@ehu.eus



Sara Trazancos

Inpaktu soziala
saragabriela.trazancos@ehu.eus





Unibertsitate solidarioa: Garapenerako Lankidetzza





1. Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako Praktiken eta Lanen (GRAL) Programa





Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako Praktiken eta Lanen (GRAL) Programa

Ikasleei nahitaezko praktikak eta GRALa lankidetzara erakundeek garapen bidean dauden herrialdeetan egiten dituzten proiektuetan garatzeko aukera ematen dien programa.

21. edizioan, 41 ikaslek (% 90 emakumeak, % 10 gizonak) parte hartu dute, UPV/EHUko 11 ikastegitakoak, eta 7 herrialdeetan egin dituzte beren praktikak eta GRALak.

+ info.





Praktika akademikoetako tutore eta/edo UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako eta/edo Master Amaierako Lanen zuzendari lanak egiten dituzten irakasleen mugikortasunerako laguntzak (IRAKOOP)

Deialdi honek praktika akademikoetan tutore eta/edo Garapenerako Lankidetzako Proiektuetan GRALeko zuzendari lanak egiten dituzten irakasleen eskura jartzen ditu UPV/EHUko ikasleen xede diren garapenerako lankidetzako proiektuetara bidaiak guztiz edo partzialki finantzatzeko laguntzak. Bidaia horien helburu nagusia da UPV/EHUko ikasleek lankidetzako proiektuetan egiten dituzten jarduerak gainbegiratzea, baita UPV/EHUko ikasleek landu ditzaketen premia edo erronka berriak identifikatzea eta lankidetzako proiektuetan tokiko komunitateekin harremanak estutzea ere.



+ info.





Praktika akademikoetako tutore eta/edo UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako eta/edo Master Amaierako Lanen zuzendari lanak egiten dituzten irakasleen mugikortasunerako laguntzak (IRAKOOP)

UPV/EHUko **bi irakaslek** jaso zuten 2023/2024 ikasturtean [IRA-KOOP deialdiko](#) laguntza:

Manolo Velezek, UPV/EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakasleak, Kolonbiara bidaiatzeko eskaera egin zuen. 2024ko maiatzean egin zuen egonaldian, Gaztenpatia Kolonbiaren proiektuak bisitatu zituen, nagusiki Telekomunikazioen Ingeniaritza graduako ikasleek parte hartu ahal izateko lankidetzako proiektu posibleak identifikatzeko.

Miren Martinezek UPV/EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakasleak El Salvador bisitatu zuen 2024ko ekainaren 25etik uztailaren 20ra bitartean, zehazki, Asociación de desarrollo Económico Social (ADES, Santa Marta) elkartearekin. Irakasle horrek Mugarik gabeko Ingeniaritza/Ingeniería Sin Frontera (UPV/EHUko Ikasleen Elkartearekin) elkartearen eskutik, UPV/EHUko Ingeniaritzako ikasleekin elkarlanean, komunitate horretan garatzen diren ur eta saneamendu proiektuak bisitatu zituen.





2. Gaztenpatia programa





Gaztenpatia programa

Martxan jarri da **Gaztenpatia programaren VIII. edizioa**.

Gaztenpatiak, Euskal Fondoaren eta UPV/EHUren egitasmoak, aukera ematen die unibertsitateko ikasleei beren curriculumeko edo borondatezko praktikak eta Gradu Amaierako Lanak (GRAL) egiteko Euskal Fondoaren erakunde eta entitate bazkideek Latinoamerikan garatzen dituzten proiektuetan.

2023/2024 ikasturteko Gaztenpatia Programaren VIII. edizioan 35 ikasle (33 emakume eta 2 gizon) mugitu dira. Ikasle horiek Guatemalan, El Salvadorren eta Kolonbian garapenerako lankidetzan proiektuetan egin dituzte Gradu Amaierako Praktikak edo Lanak (GRAL).

Programaren web plataforma: <https://gaztenpatia.eus>





Gaztenpatia programa

Gainera, 2024ko apirilaren 22tik 26ra, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusetan, [VII. Gaztenpatia Topaketa](#) egin da, esperientziak trukatzeko Gaztenpatia proiektuen kontraparteetako Latinoamerikako ordezkariekin.





3. Garapen Jasangarrirako Unibertsitate Lankidetzako Proiektuetarako deialdia (GUL)





Garapen Jasangarrirako Unibertsitate Lankidetzako Proiektuetarako laguntzak

Gizarteak garatzeko ezagutza funtsezkoa bada ere, pertsonok eraldatzen dugu mundua. Hori dela eta, UPV/EHUko unibertsitateko kideei zuzendutako deialdi honen helburua da garapen jasangarrirako lankidetzako proiektuetan parte har dezaten bultzatzea, proiektu horiek bidezkoagoak eta jasangarriagoak diren gizarteak lortzeko aldaketa eragin dezaten.

Deialdi honen 2024ko edizioan, diruz lagundu da Javier García Ibañez irakaslea (Letren Fakultatea) buru duen garapenerako lankidetzako proiektua, **“Cabo Verdeko ondarea garatzeko Prestakuntza eta Lankidetzako Estrategiak”** delakoa. Proiektu honek kalitatezko prestakuntza eskaini nahi die Cabo Verdeko kultura eta arkeologia ondarearen kudeatzaileei, interesa duten alderdiekin eta UPV/EHU-

rekin elkarrizketa sustatuz, ingurune tropikaletan kontserbazio eta dibulgazio estrategiak garatzeko. Gainera, fenomeno historiko kolonizatzaileen ezagutza, zaintza eta dibulgazioa areagotzea du helburu, diziplinarteko eta berdintasunezko elkarrizketa sustatuz, Europan eta Afrikan kultura ondarea deskolonizatzen laguntzeko.



+ info.





4. Garapenerako Unibertsitate Elkartasunari eta Lankidetzari buruzko prestakuntza





Ikasleentzako prestakuntza

ONLINE IKASTAROA “Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan”

Norentzat: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan hasi nahi duten graduiko ikasleentzat.

Iraupena: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

Izena emandako pertsonen kopurua: aldi honetan Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako (GUL) online ikastaroaren 11. eta 12. edizioak egin dira. 2023ko urriaren 5etik azaroaren 16ra bitartean garatutako 11. edizioan, **105 pertsona** matrikulatu ziren, horietatik 79 emakumeak eta 26 gizonak. 2024ko otsailaren 12tik martxoaren 22ra bitartean garatutako 12. edizioan, **130 lagun** matrikulatu ziren, horietatik 101 emakumeak eta 29 gizonak.

+ info.



COOPERACIÓN UNIVERSITARIA AL DESARROLLO GUÍA PARA ALUMNADO

1.5 créditos
6 semanas

www.ehu.eus





Ikasleentzako prestakuntza

Beste ikastaro batzuk

UPV/EHUren irakaskuntza ikaskuntza ereduak ikasleak ikaskuntza sakona eraikitzea sustatzen du, oinarri hartuta ezagutzak eskuratzea ez ezik, gaitasunak, jarrerak eta balioak garatzea, gizarte eraldaketaren alde arduratsuak eta aktiboak diren profesional eta herritar gisa gizarteratzeko. Horregatik, 2023/2024 ikasturtean elkartasunaren eta lankidetzaren arloko prestakuntza osagarriaren aldeko apustua egin dugu, diziplina guztietako ikasleei zuzenduta eta haien prestakuntza integrala bultzatuz.

IKASTARO ERDIPRESENTZIALA "Garapena, Lankidetzeta eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologiai buruzko XXV. mintegia".

Seminario XXV

**Desarrollo,
Cooperación y
Tecnologías para
la Transición
Ecosocial**

Online + Talleres +
Excursiones

Del 4 de Octubre
al 29 de Noviembre

Créditos optativos

Plazas limitadas por orden
de inscripción

Inscripciones: hasta el 1 de Octubre

E-mail: info.bilbao@euskadi.isf.es
Tlf: 94 601 72 26
Webs:
<https://euskadi.isf.es/mintegia/>
<https://euskadi.isf.es/seminario/>

Antolatzailea / Organiza:

Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Ingeniería Sin Fronteras.

Laguntzaileak / Colaboran:

Bilbao Bizkaiak Caja de Ingenieros



5. Zabalkundea eta sentsibilizazioa





Lankidetzari eta elkartasunari buruzko zabalkunde eta sentsibilizazio jarduerak

Beste ekintza batzuk

UPV/EHUK bere gain hartzen du ikasleak prestatzeko lan garrantzitsua, ez akademikoki soilik, baizik eta prestakuntza integral batekin, gizarteei eragiten dieten arazoei buruzko eztabaidetan parte hartu ahal izateko justizia, ekitate, jasangarritasun eta giza eskubideetako errespetu handiagoarekin. Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da unibertsitatearen egunerokoan gogoeta egiteko eta elkartasuna eta gizarte konpromisoa bezalako balioak praktikan jartzeko aukera emango duten guneak sortzea. Horrela, 2023/2024 ikasturte akademiko honetan hemen deskribatutako ekintzak garatu dira.

Lankidetzaren eta gizarte konpromisoaren arloan, ekitaldi ugari antolatu dira beste erakunde batzuekin batera (eztabaidak, erakusketak, zineforuma...).



Nabarmentzekoa da **“Invisible Express”** film laburren lehiaketa, **“Zuen filmak mundua aldatuko du, hoberena ikusteko dago”** tematikarekin, Kultura Communication Desarrollo GGK Erekin elkarlanean antolatua. 128 ikaslek parte hartu dute (% 67,9 emakumeak, % 32,1 gizonak).

Sariak:

- Epaimahaiaren saria: [“Esnatu”](#)
- Publikoaren saria: [“El Cambio”](#)



Ikusezina/Invisible
EXPRESS



Lankidetzari eta elkartasunari buruzko zabalkunde eta sentsibilizazio jarduerak

Beste ekintza batzuk

Kolonbiari buruzko mintegia: "Bake Akordioaren Balantzea, Erabateko Bakeari buruzko Legea eta Erbestearen egoera"



Mintegia: "Ehunezko kartografiak: munduko emakumeekin istorioak josten"



"Las que sobrevivimos" dokumentalaren aurkezpena



Mintegia: "Errefuxiatuen aldeko hezkuntza"



Mintegiak: "Gizarte konpromisoa ikerketa akademikoko lanetan"





Unibertsitate solidarioa: gizarte konpromisoa





1. Zaurgarritasun egoeran dauden ikasleentzako laguntzak





Errefuxiatuei eta asilo eskatzaileei laguntza emateko programa

UPV/EHUK nazioarteko babes egoeran dauden pertsonen eskubideak bermatzen ditu

Lau jarduera ildo:

1. Egoera akademikoa erregularizatzeko eta unibertsitatera sartze-ko laguntza
2. Unibertsitate eremuko premia bereziei erantzuteko laguntza
3. Sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzea
4. Nazioarteko babesa duten unibertsitateko kideentzako laguntza ekonomikoa eta materiala, 20.000 euroko funts baten bidez.





Errefuxiatuei eta asilo eskatzaileei laguntza emateko programa

2023/2024 ikasturtean, nazioarteko babesaren duten **36 ikasle** (% 44,5 emakumeak eta % 55,5 gizonak) MATRIKULATU dira UPV/EHU-ren GRADUETAN, TASAK ORDAINTZETIK SALBUETSITA, 3 campusetako 13 ikastegitan. 10 herrialdeetatik etorri dira (Sahara, Mauritania, Kolonbia, Ukraina, Maroko, El Salvador, Venezuela, Siria, Errusia eta Afganistan). Gainera, nazioarteko babesagatik TASAK ORDAIN-TZETIK SALBUETSI DIRA ere beste 7 ikasle (% 28,6 emakumeak eta % 71,4 gizonak), unibertsitate MASTERRAK UPV/EHU-n egiteko, den-denak Bizkaiko Campusean.

Horien artetik 20 ikaslek (% 40 emakumeak eta % 60 gizonak) jaso dute 2023ko unibertsitate eremuko premiei erantzuteko funtsaren laguntza (ostaturako, mantenurako, garraiorako, materialetarako... laguntza ekonomikoak). Azpimarratzen dugu 6 laguni alojamendua eta mantenua eman zaizkiela UPV/EHUko ikastetxe nagusietan eta egoitzetan (% 33,3 emakumeak eta % 66,7 gizonak).





Atzerriko ikasleei eta nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradun diren ikasleei ostatu emateko laguntzen deialdia

Deialdi honetan parte har dezakete Bilbon bizi diren ikasleek, baldin eta:

- UPV/EHUn graduko ikasketak egiten ari diren nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradun diren ikasleak badira.
- UPV/EHUrekin hitzarmena duten unibertsitateetatik datozen ikasleak badira, Bilboko Udalaren IV. Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzaileko Urteko Plan Operatiboan lehentasunezko zat jotzen diren eremu eta herrialdeetan (Saharaz hegoaldeko Afrika, Sahara, Erdialdeko Amerika, Chiapas, Kuba, Kolonbia, Ekuador, Peru eta Bolivia) kokatuta daudenetatik datozenak, eta UPV/EHUn graduko ikasketak egiten ari badira.

2023/2024 ikasturtean aurrekontua 14.000 €-koa izan da, eta Kolonbia, Guatemala, Peru eta Siriatik etorritako 10 laguntzatan banatu da (9 gizon eta 1 emakume).





2. Boluntarioritza. Ikasleen parte hartzea sustatzea ekimen solidarioetan





Hautazko kredituak aitortzea, elkartasun jardueren truke

Hautazko kredituak aitortu dira gizarte erakundeetan eta UPV/EHU-ren berezko programetan eginiko elkartasun eta lankidetzazko jarduerengatik.

2023/2024 ikasturtean boluntarioritza eta lankidetzazko jarduerengatik 208 eskaerari erantzun zaie (% 75,5 emakumeak, % 24,5 gizonak), eta **590,5 kreditu** aitortu dira guztira, **17.715 dedikazio orduri** dagozkionak.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BOLUNTARIOTZA VOLUNTARIADO

Hautazko kredituen aitortpena eskatzeko epea:	Plazo para la solicitud del reconocimiento de créditos optativos:
2024ko urtarrilak 15-26	15-26 enero 2024

www.ehu.eus



Ikasleek elkartasun jardueretan parte har dezaten sustatzeko ekimenak

Web mintegiak: Europako Elkartasun Kidegoa

UPV/EHUK, Europako Elkartasun Kidegoan ziurtatutako laguntza erakundeak, parte hartzen duten ikasleak prestatu egiten ditu abiatu aurretik, eta bitartekari gisa jarduten du harrerako erakundearekin. 2023/2024 ikasturte honetan, UPV/EHUko ikasle batek 10 hilabeteko boluntarioritza proiektu batean hartu du parte Alemanian.





Ikasleek elkartasun jardueretan parte har dezaten sustatzeko ekimenak

Boluntariotzako erakunde azokak

Arabako Campuseko (Lan Harrerian eta Gizarte Langintza Fakultatea) eta Gipuzkoako Campuseko (I.M. Barriola Zentroa) boluntariotzaren erakusleihoak: 33 erakundek hartu zuten parte guztira.



Uda solidarioa kanpaina

Kanpaina horrek udan boluntario gisa lan egiteko eta opor desberdinak bizitzeko aukera guztien berri ematen du.






IKASLAGUN. Boluntariotzako programa propioa

UPV/EHUren gizarte mentoretzako programa propioa

- UPV/EHUko ikasleak Gipuzkoako babes sistemako egoitza baliabideetan artatutako haurrei errefortzu akademikoa eskaintzera joaten dira.
- Laguntza hori honetan datza: hezkuntza laguntza pertsonalizatua ematea eta esperientziak eta ezagutzak elkartrukatzea, topaketarako eta ikaskuntza sozialerako guneak bultzatuz.
- 2023/2024 ikasturtean 50 ikaslek hartu zuten parte gidari gisa: 46 emakumek eta 4 gizonek.





3. Ikasleen Biltzarra





UPV/EHUko Ikasleen VI. Biltzarra

“Gradu amaierako gure lanek mundua eraldatzeko balio dute” le-mapean, bistaratu eta aitortu egin nahi dira graduako ikasleek 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) inguruan egi-ten dituzten ikerketa lanak.

41 gradutako 99 komunikazio proposamen jaso ziren.

- Gizarte eta Lege Zientzietako 40 GRAL
- Ingeniaritza eta Arkitekturako 22 GRAL
- Osasun Zientzietako 14 GRAL
- Zientzietako 11 GRAL
- Arteen eta Giza Zientzietako 12 GRAL

99 lagunek parte hartu zuten (% 68,7 emakumeak, % 31,3 gizonak).



UPV/EHUko IKASLEEN VI. BILTZARRA
VI CONGRESO DE ESTUDIANTES DE LA UPV/EHU

Gure Gradu Amaierako Lanek mundua aldatzeko balio dute
Nuestros Trabajos Fin de Grado sirven para transformar el mundo


www.ehu.eus



UPV/EHUko Ikasleen VI. Biltzarra

Sariak banatzeko ekitaldia egin zen 2023ko azaroaren 9an, Bizkaia Aretoko Baroja gelan, eta urteko 8 GRAL onenak saritu ziren, ardatz tematiko bakoitzeko bi (Pertsonak, Planeta, Oparotasuna, eta Bakea eta Aliantzak).

Ondorengo estekan ikus daitezke sari guztiak.





4. Gizarte Mugimenduen deialdia





Gizarte Mugimenduekin lankidetzan gogoeta eta eztabaida jarduerak egiteko laguntzak

Deialdiaren helburua da modu eraginkorrean laguntzea UPV/EHU-ko unibertsitateko kideak arazo sozialetara hurbiltzen gizarte mugimenduekin lankidetzan, horretarako, baterako eztabaida bat sortuz, EHUguneren esparruan hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sustatzera bideratutako ekintzen bidez.

Parte har dezakete:

- UPV/EHUko IRI eta TEKAZEL
- UPV/EHUko Elkarten Erregistroan inskribatutako ikasleen elkarteak

Mota askotariko 9 laguntza eman dira (Palestina, euskara, errefuxiatuak, gizarte eraldaketa...), guztira 21.871,50 €-ko zenbatekoarekin. Gizarte erakunde hauekin jarduten da lankidetzan: Alkarama, Betiko Fundazioa, Euskal Herrian Euskaraz, Ongi Etorri Errefuxiatuak, EAPN Euskadi, Arabako SEADen Lagunen Elkarteak, ZEHAR Errefuxiatuekin, AISI-HEZI Fundazioa eta Emaus.





5. Boluntariotzako prestakuntza





Boluntariotzaren hastapenak. Prestakuntza gizarte eraldaketarako (onlineko ikastaroa)

Norentzat: UPV/EHUko unibertsitateko kideentzat (ikasleak, IRI, AZPko langileak, EHUalumni)

Iraupena: 12,5 ordu (0,5 ECTS kreditu).

Izena emandako pertsonen kopurua: 780 lagunek baino gehiagok eman dute izena (667k gaztelaniaz, 114k euskaraz). 593 ziurtagiri eman dira (507 gaztelaniaz, 86 euskaraz).





6. Zabalkundea eta sentsibilizazioa





Zabalkunderako ekintzak eta sentsibilizaziorako jarduerak

Ingurumen boluntarioratza

- Surfrider GKEarekin lankidetzan.
- Surfing for Science: mikroplastikoen problematikari buruzko hitzaldia eta erakusketa.
- OZEANO belaunaldia: EKIN!: zabor bilketa hondartzan. Urteko jarduera (2024an 20 lagunek hartu zuten parte).





Zabalkunderako ekintzak eta sentsibilizaziorako jarduerak

INTI ibilbidea

- Konprometitutako abentura, ikuspegi kritikoa duena.
- UPV/EHUK ibilaldi horretan parte hartzeko laguntzak eskaintzen ditu: UPV/EHUko 12 ikaslek hartzen dute parte eta horietatik 4k laguntzak jasotzen dituzte.



Elikagaien bankua

- Maiatzeko eta azaroko elikagai bilketa handietan laguntzea.





EHUgune





EHUgune – Hausnarketarako gune irekia

Euskal unibertsitate publikoak sortzen eta biltzen duen ezagutza kezka sozialen zerbitzura jartzea, kultura zientifikoa eta eztabaidaren kultura sustatuz.

EHUgunek ikerketa eta berrikuntza arduratsuaren Europako politika garatzen eta sendotzen laguntzen du. Politika horren helburua da zientzia irekiagoa lortzea, zientziaren alorraren eta gizartearen artean dagoen arrakala murriztea, eta zientzia inklusiboagoa, gardenagoa eta elkarlanekoagoa dena lortzea, parte hartze soziala sustatuz eta ikerketa gizartearen premia larrienei erantzunak bilatzera bideratuz.






EHUgune – Hausnarketarako gune irekia

EKONOOGUNE: EHUgune – Ekonomia eta Enpresa Fakultateko eztabaidagunea

EHUguneko Konpromiso eta Eragin Sozialeko zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen baterako ekimena, ikasleen artean eztabaida eta hausnarketa kritikoa sustatzeko ekonomiaren eta enpresaren esparruan interes berezia duten gaiiei buruz.



ZUZENGUNE: EHUgune – Zuzenbide Fakultatea – Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko eztabaidagunea

UPV/EHUK eta EAEko Auzitegi Nagusiak gizarte intereseko hainbat gairi buruz elkarrekin hausnartzeko foroa, sistema desberdinetako profesionalen arteko elkarriketa sustatzeko, herritarrek gai horiei buruz dituzten kezak argitu ahal izateko.





Jarduerak – EHUgune

CoARA: ikerketa ebaluatzeko sistema erreformatuz

2024ko uztailean, Espainiako Unibertsitate Sistemak ebaluazioa erreformatzeko konpromisoa hartu zuen CoARArekin, Ikerketaren Ebaluazioaren Aurrerapenerako Koalizioarekin, National Chapter Spain delakoaren bidez. UPV/EHUn aukera horretaz baliatu nahi dugu ikerketa ebaluatzeko sistemari buruz hausnartzeko eta hobetzeko proposamenak egiteko, nazioarteko gainerako ikertzaileekin bat eginez, ikerketak eta berrikuntzak bikaintasunean eta inpaktu akademiko eta sozialean hazten jarrai dezaten. Mahai inguruaren moderatzaile lanetan David Hoyosek jardun zuen, UPV/EHUko EHUgune - Konpromisoa eta eragin sozialeko zuzendariak, eta honako hauek parte hartu zuten: Pastora Martínez, Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) nazioarteko ekintzarako ordezkaria; Senena Corbalán, Murtziako Unibertsitateko ikerketa errektoreordea; Alvaro Arrizabalaga, UPV/EHUko ikerketa laguntzarako zuzendaria; Isidro F Aguillo, CSICeko Ondasun eta Politika Publikoen Institutuko Zibermetria Laborategiko arduraduna; eta Alicia Alonso, UPV/EHUko katedraduna eta Espainiako Elkarte Zientifikoaren Konfederazioko lehendakariordea.





Jarduerak – EHUgune

EkonoGune #3 2024, austeritatera bueltan? Zor publikoa, egonkortasuna eta hazkundera Europan

Politika fiskala, moneta politikarekin batera, kudeaketa makroekonomikoaren gaur egungo tresna nagusietako bat da. Azken lau hamarkadetan, ordea, inflazioaren aurkako borrokari emandako lehenetasunak palanka fiskalak jarduteko duen aukera txikitu du. Hori argi eta garbi ikusten da botere politikotik independenteak diren banku zentralak dituzten herrialdeetan eta eskualdeetan. Mahai inguru horren helburua izan zen eztabaida eta baterako hausnarke-ta bultzatzea hauen inguruan: politika fiskalak gaur egungo tresna makroekonomiko gisa duen eginkizuna, defizitari eta zorrari mugak ezartzearen komenigarritasuna, eta Europar Batasuneko kideentzat komunak diren diziplina arauak (bir)diseinatzea. Mahai inguruan moderatzaile gisa jardun zuen Marisol Estebanek, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatuko katedradunak, eta honako hauek hartu zuten parte: Juan Barredo, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle

atxikia; Paloma Villanueva, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Ekonomia Aplikatua, Egitura eta Historia Saileko irakasle elkartua eta Javier Ferri, Valentziako Unibertsitateko Analisi Ekonomikoaren Oinarrietako katedraduna.





Jarduerak – EHUgune

ZuzenGune #2 Lagun egitea heriotza prozesuan

Mahai inguru horretan, elkarrekin hitz egin eta hausnartu zen heriotza prozesuaz, autonomia pertsonalaz, laguntzaz, doluaz, suizidioaz eta, batez ere, beldurraz, maitasunaz, besarkadaz, isiltasunaz, hitzaz eta partekatzeaz hitz egin zen. Beldurrik gabe, zalantzarik gabe, geurre prozesuaren partaide sentitzeko, inoren prozesuan laguntzeko.

Mahai inguruan moderatzaile lanetan aritu zen Inés Soria Encarnación, Bilboko Lehen Auzialdiko 2 zenbakiko Epaitegiko epailea, eta honako hauek parte hartu zuten: Izaskun Andonegi Goikoetxea, BIDEGINeko gaixotasun larrian eta doluan laguntzeko Gipuzkoako elkarte zuzendari laguntzailea; Alvaro Iruin Sanz, Osakidetzako osasun mentaleko sarearen zuzendaria; eta Ane Fadrique Blanco, Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zenbakiko epaitegiko epailea.





Jarduerak – EHUgune

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrena Euskal Herriko Unibertsitatean

“Pertsona guztiak aske jaiotzen gara”, horrela hasten da duintasunari, berdintasunaren edertasunari, mugarik gabeko errespetuari, askotariko mundu bati egindako kantua. Artikulu bakoitzak mundu berri batekiko konpromiso bat du, non inor ez den atzean geratzen, non izaki bakoitza baloratua den. Bizitzeko eskubidea, askatasunerako eskubidea, segurtasunerako eskubidea, adierazteko eskubidea, sinesteko eskubidea, maitatzeko eskubidea, amesteko eskubidea, bilatzeko eskubidea, aurkitzeko eskubidea. Euskal Herriko Unibertsitatetik espero dugu egun hartako argiak irautea eta eskubideek argitzea beti gure ekintzak. 75 urte. Aparteko dokumentu baten urteurrena: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Bere ondarea, gure eskuetan. Pedro Arrojoaren —edateko uraren eta sa-neamenduaren giza eskubideei buruzko Nazio Batuetako errelatore berezia— hitzaldiaren ondoren, elkarrizketari txanda eman zitzaion

hauen partaidetzarekin: Jon Mirena Landa, Giza Eskubideen eta Bortere Publikoen UNESCO Katedraren zuzendaria; eta moderatzaile lanetan Maitena Salinas, Giza Eskubideetan aditua den kazetaria.





Jarduerak – EHUgune

Gaza: unibertsitatea eta krisi humanitarioak

Mahai inguru horretan, Gazako egungo egoera jorratu zen ikuspegi soziologiko, humanitario eta juridikotik. Krisi horrek ezbaian jarri ditu giza eskubideen defentsaren munduko arkitekturaren oinarriak. Noé Cornago "UPV/EHUko Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko-juridikoak eta Pentsamendu Politikoaren Historia Saileko irakasle titularra" aritu zen mahai inguruko moderatzaile lanetan eta honako hauek parte hartu zuten: Bárbara Ruiz, Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziako (UNRWA) Euskadiko ordezkaria; María Dolores Bollo, UPV/EHUko Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko-juridikoak eta Pentsamendu Politikoaren Saileko irakasle titularra; eta Irantzu Mendia, UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle agregatua.





Jarduerak – EHUgune

EkonoGune #4 Ba al dago beste ekonomiarik? Ekonomia Sozial eta Solidarioaren erronkak

Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) ikuspegi ekonomikoa da, eta elkartasuna, lankidetzeta eta ongizate kolektiboa azpimarratzen ditu, onura indibiduala maximizatu beharrez. Ideia honetan oinarritzen da: jarduera ekonomikoa gizarte osoari mesede egiteko moduan antolatu daiteke eta antolatu behar da, ez gutxi batzuei bakarrik mesede egiteko moduan, ekonomia bidezkoagoa, ekitatiboagoa eta iraunkorragoa sustatuz, non lehentasuna emango baitzaio pertsonen eta komunitateen ongizateari enpresa irabazien gainera. Jon Las Heras UPV/EHUko Ekonomia irakasle agregatuak moderatutako mahai inguruan honako hauek parte hartu zuten: Carmen Marcuello, Ekonomian katedraduna, Zaragozako Unibertsitatea; Igor Ortega, Lanki Institutua, Mondragon Unibertsitatea; eta Imanol Basterretxea, Ekonomian irakasle titularra, UPV/EHU.





Jarduerak – EHUgune

2024 urte olimpikoa: transgeneroa eztabaidagai Pariseko Joko Olimpikoen aurrean

Parisko hurrengo olinpiadetan atleta transgeneroek parte hartzeak eztabaida bizia sortu du kirol komunitatean eta komunitate feministan, eta emakumeen kiroleko lehiaren zuzentasunari eta osotasunari buruzko kezka planteatu ditu. Mahai inguru horretan, egoera hori jorratu zen, trans pertsonak kirolean sartzearen eta emakume atleten eskubideak eta aukerak babestearen arteko oreka aurkitzeko helburuarekin. Verónica Gómez SER kateko kirol kazetariak moderatu zuen mahai ingurua, eta honako hauek hartu zuten parte: Gorka Iturriaga, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria; Izaro Antxia, emakume trans kirolaria; Borja Osés, kirol zuzenbidean aditua den abokatua; eta Maria Tato, RFEFko zuzendaria eta 2030eko Munduko Kopako batzorde betearazleko kidea.





Jarduerak – EHUGune

I Klimagune: Klima aldaketaren aurkako borroka: betetzen ari al gara Parisko Akordioaren bide orria?

Parisko Akordioa indarrean sartu eta zortzi urtera, eta 2030ean ebaluatetik sei urtera, mahai inguru honen helburua izan zen Ingurumenaren Mundu Eguna (ekainak 5) baliatzea klima aldaketaren aurka borrokatzeko konpromisoak mundu mailan, estatu mailan eta erkidego mailan zenbateraino betetzen diren aztertzeko eztabaida soziala bultzatzeko eta, adituekin batera, bide zail baten argi-itzalei buruz eztabaidatzeko. Bide zail hori, Nazio Batuetako idazkari nagusi Antonio Guterresen hitzetan, "alerta gorria da gizadiarentzat". Estibaliz Sáez de Cámara UPV/EHUko Jasangarritasuneko zuzendaria moderatu zuen eztabaida, eta honako hauek parte hartu zuten: María José Sanz, BC3, Basque Centre for Climate Change zentroko zuzendaria; Jorge Riechmann, Etika eta Filosofia Politikoko irakaslea Madrilgo Unibertsitate Autonomoan; María García, IHOBE Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko Estrate-

gia eta Berrikuntzako zuzendaria; eta Iñaki Barcena, Zientzia Politikoko irakasle osoa eta EKOPOL (UPV/EHU) ikerketa taldeko kidea.






Jarduerak – EHUgune

Beste batzuk

2024an egindako beste ekitaldi batzuen artean daude: VII. Laborategia: Bakearen Ekonomia, Euskal Enpresa eta Giza Eskubideak 2024, Gernika Gogoratuz erakundearekin lankidetzan antolatua, eta Urdaibairen etorkizunari, ondareari eta nortasunari eta atzerriartasun legerari buruzko jardunaldiak, UPV/EHUko Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak Masterrarekin batera antolatuak.





Inpaktu soziala





Inpaktu soziala

UPV/EHUK irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia arloko proiektuak bideratu zituen, unibertsitateko kideen ekintzek gizartean duten eragina kudeatzeko eta neurtzeko mekanismoak ezartzeko. Ekimen horien helburua zen gizarteari egindako ekarpenen balioa erakusteko informazioa eta ebidentziak edukitzea eta UPV/EHU inpaktu sozialaren neurketan eta kudeaketan erreferentziazkoa bilakatzea mundu mailan.



Helburuak:

- Unibertsitatearen eraldaketa sustatuko zuten ekintzak ahalduztea. UPV/EHUK sortutako eragin sozialari buruz ikertu zen, ezagutza zientifikoa sendotzeko eta goi mailako hezkuntzako beste erakunde batzuetan eragin soziala kudeatzeko eta neurtzeko proiektuen buru izateko.
- Inpaktu kultura sustatzea. Arrakasta izan duten kasu errealak identifikatu ziren eta unibertsitateko kideen artean eragin esanguratsua sortu zuten UPV/EHUren barruko esperientzia zehatzetatik ikasi zen.
- Lankidetzeta eta **networkinga** sustatzea. Irakaskuntzan, ikerketan eta transferentzian inpaktu soziala sortzeko interesa duten unibertsitateko kideei lagundu zitzairen eta horiek elkarren artean konektatu ziren.



i3 Jendartea jardunaldian parte hartzea (HELAZ)

i3 Jendartea: Kalitatezko hezkuntza berrikuntza egiten dugu? Ebaluazioa eta inpaktua izeneko jardunaldia antolatu zen, eta "Inpaktua aztertzen UPV/EHUn" izeneko mahai inguruan parte hartu zen. Beñoña Blanco Bilboko Ingeniaritza Eskolako Kalitatearen eta Ebaluazio Institutuzionalaren arloko zuzendariak moderatu zuen mahai inguru hori. Hauek izan ziren mahai inguruko kideak: Estibaliz Sáez de Cámara, Jasangarritasuneko zuzendaria; Glòria Nunes, Euskampus Fundazioko nazioarteko kudeatzailea; eta Sara Gabriela Trazancos Tirado, UPV/EHUko Inpaktu Sozialeko arduraduna.

Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE-HELAZ) antolatu zuen, Nekane Belokik, HELAZeko zuzendariak.

Tokia: Carlos Santamaria eraikina, Gipuzkoa.

Data: 2023ko urriaren 27a.

Hizkuntza: euskara eta gaztelania.

Norentzat: IRI/TEKAZEL eta unibertsitateko kideak oro har.





Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren jarduerak gizartean duen eraginari buruzko txostena egitea

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak txosten bat egin zuen, 2021., 2022. eta 2023. urteetan bere jarduerak izandako eragin sozialaren neurketan oinarrituta. Lan hori Bernardo García Izquierdok zuzendu zuen, ESImpact Eragin Soziala Neurtzeko Espainiako Elkartearen sortzaile eta lehendakariordeak, eta Sara Gabriela Trazancos Tirado UPV/EHUko Inpaktu Sozialeko arduradunak eman eta koordinatu zuen.

Errektoreordetzaren jarduera operatiboek sortutako aldaketak eta eraldaketak ezagutzeko eta aztertzeko informazioa eta ebidentziak bildu ziren.

2023ko abenduan tailer hau antolatu zen: *“Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren operatiboa aldatzeko teoriaren garapena”*. Inpaktu soziala neurtzeko sistema konfiguratzea zen tailer horren helburua. Errektoreordetzako langileek hartu zuten parte tailerlean, abenduaren 18an eta 19an, Bizkaia Aretoko Barandiaran aretoan, Bilbon.

Lau fasetan egituratu zen txostena:

- 1. Hasierako fasea.** “Ikerketa eta Transferentzia” eta “Kultura eta Gizartea” ardatz estrategikoekin lotutako Euskal Herriko Unibertsitatearen 2022-2025 Plan Estrategikoaren helburuak, ekintzak eta jarduerak identifikatu ziren. Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak nolabaiteko jarduera edo loturaren bat izan zuen ardatz estrategiko horietan. Ardatz estrategiko bakoitzerako Aldaketaren Teorien (AT) aurretiko zirriborroak egin ziren, eta baliozkotu egin ziren zuzendaritzako kargua duten arduradunekin hautatutako pertsonekin kontrastatu ondoren.
- 2. Aldaketaren Teoria (AT).** ATak eta adierazleen sistema dagozkien interes taldeekin kontrastatu ziren. Ondoren, inpaktu sozialekin lotutako ATak eta adierazleen sistemak eguneratu ziren.



Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren jarduerak gizartean duen eraginari buruzko txostena egitea

3. Elkarrizketak. Elkarrizketetarako gidoiak diseinatu ziren, informazioa biltzeko eta baliozkotzeko tresnak landu ziren, eta elkarrizketak egiteko, transkribatzeko eta, ondoren, aztertzeko metodologia logistikoa hartu zen kontuan. 11 elkarrizketa egin ziren guztira: 5 UPV/EHU barneko langileekin eta 6 kanpoko langileekin. Zortzi elkarrizketa Inpaktu Sozialeko arduradunak egin zituen.

4. Txostena. Datu kuantitatiboak eta kualitatiboak bildu ziren, eta grabatutako elkarrizketen transkripzioak aztertu ziren. Azkenik, inpaktu sozialari eta haren azterketari buruz lortutako emaitzak jaso zituen txosten bat egin zen eta formalki aurkeztu zitzaien UPV/EHUko errektoreordetzan eta agintaritzetan zuzendaritzako karguak dituzten langileei.

Iraupena: 6 hilabete.

Hizkuntza: gaztelania.





Proiektua: “Unibertsitatearen balio soziala monetizatzeko eredua: UPV/EHUren kasua eta horren estrapolazioa”

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak babesa eman zion Finantza Ekonomia II Saileko Leire San-Jose Ruiz de Aguirre ikertzaile nagusiak (IN) bideratutako ikerketa proiektu honi: “Unibertsitatearen balio soziala monetizatzeko eredua: UPV/EHUren kasua eta horren estrapolazioa”. Proiektu horren helburu nagusia, Kontabilitate Sozialaren metodologiaz baliatuta, unibertsitateek sortutako balio soziala monetizatzeko eredu bat garatzea izan zen.

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzako Inpaktu Sozialeko arduradunak bitarteko lanak egin zituen unibertsitatearekin informazioa biltzeko eta baliozkotzeko. Proiektuaren testuinguruan, zortzi elkarrizketa egin zitzaizkien UPV/EHU barruko eta kanpoko langileei; adierazleak eguneratzeari jarraipena eman zitzaion; eta modu aktiboan parte hartu zuen, Leire San-Joserekin batera, proiektuaren emaitzak argitaratzeko kapitulu honen garapenean: “Adierazleetara bideratutako balio aldagaiak: printzipioak, prozesua eta emaitza UPV/EHUen”.



ENLIGHT Impact Awards 2024 sarietako epaimahaia

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak, Nerea Jaureguizarrek zuzendutako Ikerketa Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritzaren eta Sara Gabriela Trazancos Tirado Inpaktu Sozialeko arduradunak zuzendutako EHUgune Konpromisoa eta eragin sozialaren bitartez, epaimahai gisa parte hartu zuten UPV/EHUren [“ENLIGHT Meeting. Impact Awards 2024”](#) sarietarako proiektu hautagaien aurretiazko hautaketan. Deialdi hori ENLIGHT unibertsitate aliantzak antolatzen du urtero, eta horren helburua da kide diren unibertsitateetan nabarmentzen diren ahalegin akademikoak aintzatestea eta ikusaraztea, eredugarriak baitira inpaktua planifikatzeko eta lortzeko.

Edizio horretan, gai desberdinetako sei proposamen jaso ziren; hala nola berdintasuna, kultura eta sormena, iraultza eta inpaktu digitala, osasuna eta ongizatea, eta klima aldaketa.

Tokia: UPV/EHUko Leioako Campusa. ENLIGHTen bulegoak.

Data: 2024ko otsailaren 29a.

Hizkuntza: gaztelania eta ingelesa.

Bertaratuak: UPV/EHUko lau langile; ENLIGHTeko taldeak koordinatuta.





2024ko AEDEM batzarrean parte hartzea

AEDEMen XXXVIII. Batzarra, *“Ekintzailletza sortzailea, enpresa lehenetasunak eta erronka digitalak”* izenekoa, 2024ko ekainaren 12tik 14ra bitartean egin zen Toledon, enpresa ekonomiaren arloko akademiko eta profesional entzutetsuen partaidetzarekin. Programaren barruan, "Métricas de valor social I" taldean parte hartzea jaso zen, Leire San-Jose Ruiz de Aguirre (UPV/EHU) doktorea moderatzailea izanik.

2024ko ekainaren 13an, osteguna, hitzaldi hau aurkeztu zen: "Mapping the terrain: a systematic literature review on social impact in higher education institution". Goi mailako hezkuntzako erakundee-tan inpaktu sozialari buruzko literaturaren berrikuspen sistematikoa jorratu zuen. Ekitaldi hori batzarraren programa zientifikoaren parte izan zen. Guztira 657 lagunek eman zuten izena eta nabarmentze-koa izan zen maila akademiko eta antolakuntza maila handiagatik.

[AEDEM programa](#)

Tokia: Toledo.

Data: 2024ko ekainaren 12tik 14ra.

Hizkuntza: gaztelania eta ingelesa.

Norentzat: IRI.





Udako Ikastaroak. UIK. Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) inpaktu soziala

Udako Ikastaroen Fundazioak (UIK) antolatutako ["Euskal Herriko Unibertsitatearen \(UPV/EHU\) inpaktu soziala"](#) udako ikastaroa, inpaktu sozialaren arloan sortzen ari diren gaiei buruzko eztabaida akademikorako eta hausnarketarako gune gisa egin zen. Ikastaro horrek partaideen artean ideiak trukatzeko eta lankidetzan aritzeko aukerak eskaini zituen, unibertsitateko kideei inpaktu sozialaren kultura hurbiltzeko eta irakaskuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia jardueretan aplikatu daitezkeen tresna teorikoak eta praktikoak emateko.

Sara Gabriela Trazancos Tirado, UPV/EHUko Inpaktu Sozialeko arduraduna, izan zen ikastaroaren zuzendaria. Jarduera nabarmenen artean, hitzaldi hau aurkeztu zen Sara Gabriela Trazancos Tiradoren eskutik eta Bernardo García Izquierdoren, EsImpact Eragin Soziala Neurtzeko Espainiako Elkartearen sortzaile eta lehendakariordearen, eskutik: "UPV/EHUren inpaktu sozialaren neurketa". Halaber, "ENLIGHT Impact Awards proiektuak" izeneko mahai ingurua antolatu zen eta partaide hauek izan zituen: Antonio Casado da Rocha

(Senior Research Fellow), Itziar Alkorta (Biokimika eta Biologia Molekularreko irakaslea) eta Urtza Garay Ruiz (Bilboko Hezkuntza Fakultatea). Sara Gabriela Trazancos Tirado izan zen moderatzailea.

Tokia: Bizkaia Aretoa, Bilbo, Bizkaia. Gobernu Kontseiluaren aretoa.

Data: 2024ko ekainaren 27a.

Hizkuntza: gaztelania.

Norentzat: UPV/EHUko langileak eta publiko orokorra. 52 lagun matrikulatu ziren.





Lankidetzak



Erakunde publikoekin lankidetzak eta sareak





Lankidetzak beste erakunde batzuekin







A photograph of four people sitting on a beige sofa in a modern office environment. From left to right: a woman with long brown hair wearing a black blazer over a grey top and white pants; a man with glasses and a beard wearing a blue blazer over a white shirt and light blue jeans; a woman with dark curly hair wearing a white blazer over a white top and dark blue jeans; and a man with curly hair and a mustache wearing a blue short-sleeved shirt and dark pants. They are all looking towards the camera. The background shows office shelves and windows.

Eman eta zabal zazu!

eman eta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL